

Año LIV. urtea
133 - 2022
Urtarrila-ekaina
Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Goizuetako azentueraren
garapena kokatzen
Euskara Batu Zaharraren
prosodia zehazteko:
proposamenen ebaluazioa**

Ander Egurtzegi

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LIV. urtea - N.º 133. zk. - 2022

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Goizuetako azentueraren garapena kokatzen Euskara Batu Zaharraren prosodia zehazteko: proposamenen ebaluazioa
Ander Egurtzegi 9

Paul Broca, garunetik hizkuntzara euskararen bideetatik
Joanes Atxa Olaiz 37

Oltzako aldaeraren inguruan (2 – Ihabarko azpialdaera)
Koldo Artola 61

Irudikapenetik esperientziara: euskal literaturaren ikerketa feministaren hastapenak XX. mendearen bukaeran
Maite Luengo Aguirre 115

Altsasuko hizkuntza-paisaiaren azterketa euskararen biziberritzearen testuinguruan: merkataritzako esparrua
Idoia Granizo Uribarrena 131

Euskal doinuaren ulermena: Markinako galderak eta baieztapenak
Izaro Bedialauneta Txurruka, Jennifer Zhang, José Ignacio Hualde 159

Pertsona murriztapenak ditu egitura inbertsonalak: euskararen kasua
Ane Odria, Ane Berro, Beatriz Fernández 191

ERRESEINAK / RESEÑAS / REVIEWS

Euskal literatura itzuliaren egiturak eta islak (1975-2015)
Ane Irizar Melero 223

VARIA

Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa (I. dokumentu argitaratuak)
Ekaitz Santazilia 229

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals 259

Goizuetako azentueraren garapena kokatzen Euskara Batu Zaharraren prosodia zehazteko: proposamenen ebaluazioa

Situando el desarrollo de la acentuación de Goizueta para definir la prosodia del vasco común: Evaluación de las propuestas

Placing the development of the Goizueta prosodic system to define the prosody of Common Basque: Evaluation of the proposals

Ander Egurtzegi
CNRS – IKER UMR-5478
ander.egurtzegi@iker.cnrs.fr
<https://orcid.org/0000-0002-3451-323X>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv133.1>

Lan honek ANRaren finantzazioa jaso du (ANR-20-CE27-0007), «Modern approaches to diachronic phonology applied to Basque» (MADPAB) proiektuaren bidez. Eskerrak zor zaizkie Iñigo Urrestarazuri eta Juliette Blevinsi egindako iruzkinengatik, nahiz eta beti jarraitu ez diegan. *FLV* aldizkariko editore eta errebisoreek ere testua hobetzen asko lagundu dute, eta horregatik eskertu nahi nituzke. Geratu diren akatsak nireak dira, noski. Artikuluan zehar, Goizuetako euskarako adibideak erreferentziarik gabe aipatzen diren kasu guztietan Lujanbioren (2013/2018) lanetik hartuak dira.

Jasotze data: 2021/10/21. Behin-behineko onartze data: 2021/12/24. Behin betiko onartze data: 2022/04/20.

LABURPENA

Goizuetako sistema prosodikoaren garapena Euskara Batu Zaharraren prosodiaren berreraiketaren inguruko azken lanetatik sortu den desadostasun puntu nagusia da. Honakoan, aurkeztu diren azken bi hipotesiak –Hualderena eta Egurtzegirena & Elordietarena– alderatuko dira, haien alderdi indartsu eta ahulak nabarmenduz, aukera bakoitzaren egiantzekotasuna baloratzeko. Konparazioaren ostean, Egurtzegiren eta Elordietaren proposamena hobetsi da, hipotesi horrek duen arazo nagusia (hau da, klase markatuen arteko analogia prozesuak proposatzeko beharra) Hualderen hipotesiak ere partekatzen duelako eta azken hipotesiak dituen arazo zenbait saihesten dituelako.

Gako hitzak: Euskara Batu Zaharra; prosodia; azentuazioa; Goizuetako euskara; dialektalizazioa.

RESUMEN

El desarrollo del sistema prosódico de Goizueta es el principal tema de desacuerdo entre las últimas propuestas de reconstrucción de la prosodia del vasco común. En este artículo se comparan las dos últimas propuestas –de Hualde y Egurtzegi & Elordieta– a este respecto, subrayando sus puntos fuertes y débiles para valorar la plausibilidad de cada una. Tras compararlas, se opta por la propuesta de Egurtzegi y Elordieta, ya que el principal problema de esta hipótesis (la necesidad de proponer procesos analógicos entre clases marcadas) también está presente en la hipótesis de Hualde, mientras que evita varios problemas de esta.

Palabras clave: Vasco Común Antiguo; prosodia; acentuación; euskera de Goizueta; dialectalización.

ABSTRACT

The development of the prosodic system of Goizueta is the main point of disagreement between the last works on the reconstruction of the prosody of Common Basque. Here the two last hypotheses –Hualde’s and Egurtzegi & Elordieta’s– will be compared, highlighting their main strengths and shortcomings in order to evaluate each proposal’s plausibility. After the comparison, Egurtzegi and Elordieta’s hypothesis is favored, because its main shortcoming (that is, the need of proposing analogical processes between marked accentual classes) is also shared by Hualde’s proposal, while several problems of this proposal are absent in the former.

Keywords: Old Common Basque; prosody; accentuation; Goizueta Basque; dialectalization.

1. SARRERA. 2. GOIZUETAKO AZENTUERA SISTEMAREN DESKRIBAPENA. 3. EUSKAL AZENTUEREN KRONOLOGIA. 4. GOIZUETAKO SISTEMAREN SORRERA. 4.1. Hualde (inpr.). 4.2. Egurtzegi & Elordieta (inpr.). 5. BI PROPOSAMENEN ARTEKO ALDERAKETA. 5.1. Berreraikitako sistemaren konplexutasuna eta paralelo tipologikoak. 5.2. Banaketa geografikoa eta kronologia. 5.3. H* doinu azentu ez-markatuaren sorrera. 5.4. L* doinu azentu markatuaren sorrera. 5.5. Goizuetako azentu klaseak eta hitz ezberdinen klaseen arteko distribuzioa. 6. ONDORIOAK. 7. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Euskararen hizkerak azentuera oso ezberdinak dituzte. Alde batetik, mendebaldean sintagma mailako sistema multzo bat dugu, azenturik gabeko eta azentua duten hitzak doinu azentu baten bidez bereizten dituen. Bestalde, hitz mailako intentsitate azentua duten hizkerak ditugu euskal esparru gehiengan, baina lekuz leku oso ezberdina izan daitekeena. Oro har, Nafarroa inguruko erdialde zabal batean silaba azentuduna hitz hasieratik zenbatuz zehazten da, ekialdeko hizkeretan hitz amaieratik zenbatuz zehazten den arren (ikus Hualde, 1997 sistema ezberdinen deskribapenearako). Azkenik, Goizuetan sistema konplexu bat dugu (cf. Hualde & Lujanbio, 2008; Hualde et al., 2008; Hualde et al., 2010, besteren artean), azentua hitzaren lehen bi silabetan ezartzen duena bi doinu azentu ezberdin baliatuz (ikus § 2). Sistema nagusiez gain, kasu guztietan ezberdintasun ugari aurki ditzakegu hizkera batetik bestera (besteren artean, azentu ez-markatua daraman silaba edota azentuaren bereizgarri akustikoen artean iraupena dagoen edo ez). Horren sistema ezberdinak dituen hizkuntza batean, azentuaren diakroniak ezinbestean interes handia du.

Azken garai honetan euskal azentuaren garapenaren kronologiaren inguruko literatura nabarmen handitu da. Nahiz eta gai honen inguruko galdera garrantzitsu zenbait duela urte dezente erantzun ziren (ikus, esaterako, Mitxelena, 1977/2011 edota Hualde, 1993), ez da horrenbeste denbora pasa euskal azentuaren kronologiaren irudi zabalak aurkeztu dituzten ikerketak plazaratu zirenetik (ikus, besteren artean, Egurtzegi & Elordieta, 2013, inpr.; Elordieta, 2011; Hualde, 2012, inpr.). Ez da harrigarria proposamen berri hauek lehenago etorri ez izana: hizkuntza baten azentuaren berreraiketa edota kronologia prestatu ahal izateko, lehendabizi hizkuntza jakin horren bariazio

dialektalaren deskribapena ezinbestekoa dugu. Euskalariek –eta bereziki Hualdek (lan askotan, baina batez ere 1997)– lehen pauso hori emateko gogor eta luze lan egin behar izan dute azken hiru hamarkadetan zehar.

Euskal azentueren eboluzioa modu paraleloan ikertu duten azken lan nagusiak (i.e. Egurtzegi & Elordieta, inpr. eta Hualde, inpr.) euskal azentueren bariazioa zabal eta zehatz deskribatu duen tradizioaren oinorde dira. Ez da harrigarria, beraz, haien artean ezberdintasun gutxi izatea; deskribapen sinkronikoez gain, biek baliatu dituzte azentuera zaharraren berreraiketaren inguruko hainbat lan garrantzitsu, apurka-apurka finduz joan den ikergai zabal bat osatuz (besteren artean, Egurtzegi, 2014; Egurtzegi & Elordieta, 2013; Elordieta, 2011; Hualde 1993, 1995, 2003, 2007, 2012; Martinet, 1950, 1955/1970; Mitxelena 1957-58/2011, 1972/2011, 1977/2011).

Labur esanda, Hualderen (inpr.), eta Egurtzegiren eta Elordietaren (inpr.) proposamenen arteko ezberdintasun nagusia Goizuetako azentueraren garapenean datza. Alde batetik, Hualdek H* eta L* doinu azentuen arteko oposaketa, Goizuetako sistemaren bereizgarri nagusia, Euskara Batu Zaharraren prosodiaren parte zela proposatzen du, eredu ez-markatua beranduago garatu zelakoan. Proposamen horrek Goizuetako sisteman oinarritzkoa den L* doinu azentua garai zaharrean sortzea dakar, Euskara Batu Zaharraren sistemari eragin ziolako. Bestetik, Egurtzegik eta Elordietak (inpr.) L*-ren garapena bilakabide berantiarrago bati egozten diote; berrikuntza hau determinatzaile pluralaren gramatikalizazio gradualaren eraginaren ondoriozkotzat dute, hain zuzen ere. Egurtzegiren eta Elordietaren ikuspegiak Goizuetako azentu sistema erdialdeko sistematik garatu zela proposatzen du; ondorioz, berriagoa izango litzateke. Lan honen helburua da aipatu bi proposamenen arteko ezberdintasunak ebaluatzea; bakoitzaren alderdi indartsu eta ahulak konparatuz bien artean egokiena zein izan daitekeen zehaztea, alegia.

Horretarako, hurrengo atalean Goizuetako azentuera deskribatuko dut (§ 2). Gero, azentuera sistema ezberdinen kronologia erlatiboari buruzko azken proposamenak (hau da, Egurtzegi & Elordieta, inpr. eta Hualde, inpr.) laburtuko ditut, eztabaida azentuera mota nagusietara mugatuz (§ 3). Ondoren, proposamen bakoitzak Goizuetako azentuaren garapena nola azaltzen (eta noiz kokatzen) duen laburtuko dut (§ 4), bi proposamenen arteko ezberdintasunak eta bakoitzak dituen arazoak aurkeztuz (§ 5). Azkenik, ondorioetan, Egurtzegiren eta Elordietaren proposamenak egiantzekotasun handiagoa duela ondorioztatuko dut, tipologikoki egiantzekoagoa delako, kronologia erlatiboari hobeto egokitzen zaiolako, eta proposamen horrek duen arazo nagusiak bi hipotesiei eragiten dielako (§ 6).

2. GOIZUETAKO AZENTUERA SISTEMAREN DESKRIBAPENA

Goizuetako azentuera azken urteetara arte ez da deskribatu (Hualde & Lujanbio, 2008, 2009; Hualde et al., 2008; Hualde et al., 2010; Lujanbio, 2013/2018; Zubiri, 2000; Zubiri & Perurena, 1998). Ondorioz, aurretiaz idatzitako euskal azentueren inguruko lanek ez dute Goizuetako sistema kontuan izan. Sistema horretan hitz guztiak dute azentua, eta azentua lehendabiziko edo bigarren silaban erortzen da. Azentua doinu

azentu baten bidez gauzatzen da, eta bi azentu doinu daude: altua H*+L edo H* –sinplifikatzearen H* erabiliko dugu, Hualdek (inpr.) egiten duen bezala–, eta baxua H+L* edo L* –hemendik aurrera L*–. Bi silaben eta bi doinuen konbinazioak lau klase bereizten ditu. Hualdek (inpr. eta aurreko lanak) bigarren silabako H* doinua ez-markatutzat hartzen du, eta beste hiru klaseak markatutzat aztertzen ditu. (1) adibidean klase bakoitzeko adibideak ematen dira, Hualde (inpr.) eta Lujanbio (2013/2018) lanetatik hartuak. Goiko doinu azentua edo H* akutu baten bidez markatu ohi da (´) eta behekoa edo L* grabe baten bidez (`), eta horrela markatu ditugu hemen ere.

(1) Goizuetako azentuera klaseak

1. klasea [+2, H*]: *até, mendí, alába, aizé, basó, gizón, beláso* ‘belar-soro’, *abíon*.
2. klasea [+1, H*]: *ári* ‘ahari’, *árdi* ‘ahardi’, *áte* ‘ahate’, *úme, áma, zéru, séme*.
3. klasea [+2, L*]: *eskòla, basèrri, arràntza, bazkàri, belàrri, azèntua, benèno, lejìa*.
4. klasea [+1, L*]: *bàsò* ‘edalontzi’, *àrima, zèro, èuzki, bèste, lèngusu, làmina*.

Beste zenbait hizkeratan ez-markatuak diren hitz gehienak (1) adibideko 1. klasean agertzen dira Goizuetako sisteman. Horiek konposatu eta deribatuak ez diren euskal hitzak izan ohi dira. 2., 3. eta 4. klaseetan batez ere maileguak, hitz konposatuak eta deribatuak agertzen dira. Azentua lehen silaban duten 2. eta 4. klaseetan azentua hitz hasieran zuten maileguak (*zéru, bàso* ‘edalontzi’, *àrima, zèro*) eta lehen bi silabetan diptongazio prozesu modernoak (diptongo zaharrek ez baitute azentua erakartzen, cf. *aizé*; § 5.5) eta bokal batuketak izan dituzten euskal hitzak aurki daitezke (*ári* ‘ahari’, *áte* ‘ahate’, *èuzki, lèngusu*), besteren artean. Mailegu berriek beheranzko doinua eraman ohi dute, klasea (3.a edo 4.a) haien gaztelerazko azentuaren kokapenaren arabera ezartzen zaiela (cf. *benèno, làmina* edo *lejìa*).

Edonola ere, erregela orokor hauek ez dituzte talde bakoitza osatzen duten hitzak guttiz deskribatzen. Besteren artean, *úme, áma, séme*... bezalakoek euskal hitzak izateko aukera handiak dituzte eta ez dute bokal sinplifikazioen (i.e. silaba galeren) zantzurik (cf. akitanierazko *umme-* eta *sembe-*); hala ere, lehen silaban daramate H* azentua. Mailegu berriak ere ager daitezke talde ez-markatuan, ez halabeharrez azentua bere kokapen etimologikoan mantentzearen ondorioz, baizik eta bigarren silabara aurreratuta dutenak ere, *dezísio* ‘erabaki’ edota *abíon* ‘hegazkin’ / *abíoiren* kasuan bezala (§ 5.5). Banaketa zehazki azaltzeko zailtasunek analogiak (edo argitu gabeko beste zenbait prozesuk) hitz zenbaiten klasea aldatu izan dutela iradokitzen dute.

Honetaz gain, pluralak beheranzko azentuaren bidez markatzen dira, azentua singularrean agertzen den silaban mantentzen dela. Singular vs. plural alternantzia sistematikoa da lau silaba baino gutxiago duten hitzetan (Hualde et al., 2008).

(2) Goizuetako azentuera forma pluraletan (Hualde, impr.)

Singularra	vs.	Plurala
<i>gizónari</i>	-	<i>gizònari</i>
<i>alábari</i>	-	<i>alàbari</i>
<i>ardíri</i>	-	<i>ardìri</i>
<i>sémeri</i>	-	<i>sèmeri</i>

3. eta 4. klaseko hitzek L* azentua dutenez forma singularretan, hitzun askok ez dute horietan forma singular eta pluralen arteko ezberdintasunik egiten. Hala ere, Hualdek et al.-ek (2008, 5. or.) argitzeke uzten dute hitzun guztiek estrategia berdinak erabiltzen dituzten eta hitzun zenbaitek pluralean doinu are baxuagoa erabil dezaketen edo ez etorkizunerako ikergai bezala iradokitzen dute.

Hualdek (inpr.) beste bi zehaztapen aipatzen ditu: 2. klaseko hitz gehienak bi silabako hitzak dira (salbuespen gutxirekin), eta beheranzko azentua ez da hitz amaieran gertatzen (*purè* bezalako mailegu berrietan izan ezik). Bestalde, Lujanbiok (2013/2018, 6. or.) hitz luze eta konposatuetan bi azentu nagusi nabaritzen direla aipatzen du (e.g. *moldàketá, arràtsaldé*).

Azkenik, badira hitz zenbait azentuera aldaketa erakusten dutenak (Lujanbio, 2013/2018, 7., 80. or.), bai haien forma batetik bestera (3a), bai murriztapen intonazionalen ondorioz (3b), bai eta konposizioan ere (3c).

(3) Doinu azentu aldaketak Goizuetan

a) Aldaketak aditz paradigmaren barruan

artú, àr, artzèn 'hartu': *Bóltsa artú dut; àr tzo bóltsa; bóltsa artzèn ái naiz.*

así, às/así, astèn 'hasi': *Lánen así naiz; às zittez lánen/así zittez lánen; astèn al tza áuro lánen.*

b) Aldaketak intonazioaren eraginez

án 'han': *Án da itxéa. Non? Án.*

atzó 'atzo': *Atzó zen bazkaria. Noiz? Atzó.*

c) Aldaketak konposatuetan:

arráts vs. *arrátsaldé*

eó 'hego' vs. *eò-aizé* 'hego haize'

gibél vs. *gibèlurdín* '(onddo mota)'

sué 'suge' vs. *suègorrí* 'bibora'

ama vs. *amàiarra* 'amaginarreba', *amàutxi* 'amabitxi'

Laburbilduz, eta beste euskal azentuera sistemekin konparazioa errazteko, Goizuetako azentuerak hurrengo ezaugarri nagusiak dituela esan dezakegu:

(4) Goizuetako azentuaren ezaugarri nagusiak

i. Hitz mailako azentua

ii. Hitz guztiak azentudunak

iii. Azentuaren esparrua hitzaren lehen bi silabetara mugatua

iv. Azentu ez-markatua bigarren silaban

v. Bi doinu azentu kontrastibo (H* eta L*)

3. EUSKAL AZENTUEREN KRONOLOGIA

Aurreratu dudana bezala, euskal azentuera ezberdinen kronologiaren inguruko azken lanek oinarri nagusiak partekatzen dituzte. Hala ere, Hualderen (inpr.) eta Egurtzegiren


eta Elordietaren (inpr.) proposamenen artean bi ezberdintasun nagusi daude: (i) artikulu bakoitzak jorratzen dituen denbora tartea ezberdinak dira; eta (ii) Goizuetako sistemen sorrera garai ezberdinetan kokatzen dute.

Bi ikerketen arteko lehendabiziko ezberdintasuna lan bakoitzak jorratzen duen denbora tartea da. Alde batetik, Egurtzegi eta Elordieta (inpr.) denboran atzerago doaz eta Aitzineuskara Zaharretik hasitako berreraiketa bat proposatzen dute, aurreko lanetan garatutako proposamenetan oinarria duena (ikus Egurtzegi, 2014; Egurtzegi & Elordieta, 2013; Elordieta 2011). Aitzineuskara Modernoa eta Euskara Batu Zaharra ere jorratzen dituzte, garai bakoitzarentzako proposamenak aurkeztuz.

Bestalde, Hualdek (inpr.) garai hurbilagoetara ekartzen du euskal azentuera sistema ezberdinen ikerketa. Egurtzegik eta Elordietak (inpr.) ez bezala, Hualdek mendebaldeko, erdialdeko, eta ekialdeko sistema orokorretatik sortutako bariazio lokal modernoagoaren garapena zehazten du. Besteren artean, sistema bakoitzaren barruan herriz herri gertatu diren azentuera ez-markatuaren eta markatuaren kokapenaren mugimenduak eta horiek ekarri izan dituzten aldaketak (esaterako, azentuaren eragin domeinuari dagokionez) aurkezten ditu, lekuan lekuko bariazioaren garapen historikoarentzako proposamenak eskainiz. Bi lanen arteko konbinazioak, beraz, euskal azentueren irudi oso zabal bat eskaintzen digu, garai zaharrenetatik garai modernoetara doana.

Bi lanen arteko bigarren ezberdintasuna, eta bi proposamenen artean dagoen ezadostasun nagusia, Goizuetako azentuerari dagokio. Zehatzago, Goizuetan egun aurkitzen dugun bi azentu doinuen arteko oposizioa zein garaitan (eta nola) garatu zen azaltzean bi proposamenek oso ikuspegi ezberdinak aurkezten dituzte. Edonola ere, bi ikuspegi arteko ezberdintasunak zehaztu aurretik, 1. irudian irudikatu dugun Goizuetako azentuera barne hartzen ez duen jarraipen kronologikoa labur aurkeztuko dugu, honetan ez bailitzateke egongo ezadostasun nabaririk. Kronologia honek hiru euskal azentuera sistema hedatuenean garapena azaltzen du, baina horren gainean Goizuetako azentuera txertatzea da aurretik daukagun erronka. (5) adibidean (eta hurrengoan), azentu ez-markatua barra zeharrezaren ezkerretara agertzen da, eta azentu markatua honen eskuinera argiago eta letra etzanaz.

(5) Hiru euskal azentuera hedatuenean arteko kronologia



Bi proposamenen arabera, gaur egun Bizkaiko iparraldean (cf. Hualde, 1997) aurkitzen den esaldi mailako azentuera sistema hiru sistema prosodiko hedatuenean artean zaharrena izango litzateke. Sistema honetan, hitz azentudunak eta azentugabeak bereizten dira. Hitz azentudunak maileguak (*léku, ganbára, kipúla, libúrullíbru, aiskóra...*), konposatuak (*bélarri, tóki, egúski, burú-gogor, begí-gorri, sagú-sar...*) eta atzizki zenbait (*-ak, -ek, -(e)kas, -ei, -ago, -en, -egi, -ki, -txu, -(t)ar, -ti, -tzaile...*) dituzten hitzak izaten dira. Esaldi jakin batean hitz azentudunik ez badago, azentua aditzaren aurreko azken silaban gauzatzen da: *laguné etorri de* vs. *lagune berandú etorri de*. Lexikoa ez den azentu hau azentu deribatua deitua izan da (Jun & Elordietak, 1997). Hitz azentugabe isolatuetan, azentua amaieran agertzen da. Hitz azentudunetan, ordea, azentua azkena ez den beste silaba batean agertzen da. Morfema azentudun bat edo gehiago duten hitzak azentudunak dira (deskribapen sakonago baterako, ikus Hualde, 1997, beste lan askoren artean). Sistema honetan, esaldi guztien lehen silaban doinu baxu bat dago, eta bigarrenean doinua igotzen da hitz azentudun bat heltzen den arte. Azentu lexikoa H*+L doinu azentuaren bidez deskribatu ohi da (Hualde et al., 1994), baina Egurtzegik eta Elordietak (inpr., § 3.1.1) H* bezala deskribatu daitekeela proposatzen dute. Kasu horretan, H* azentuaren osteko L% muga doinuak eragingo luke doinuaren beherakada.

Egurtzegik eta Elordietak (inpr.) aitzin mendebaldeko sistematik aitzin-erdialdeko sistema bi aldaketa nagusiren ostean garatu zela proposatzen dute. Alde batetik, azentuaren eragin eremua esaldi mailatik hitz mailara aldatu zen Euskara Batu Zaharraren zatiketari erdialde-ekialdeko euskalkia bereizi zenean (cf. Urrestarazu, 2021). Horrek unitate prosodiko txikiena hitz fonologikoa izatea ekarri zuen. Aldaketa hori hitz azentudunen kopurua asko igotzearen ondorioa izango litzateke: gero eta ohikoagoak ziren mailegu erromantzeek gain, Erdi Aroaren lehen erdian sortutako konposatu zaharrak ere azentudunak ziren. Horretaz gain, azenturik ez zuten hitz guztiei azentu ez-markatua ezarri zitzaizkien hitzaren bigarren silaban. Gogoan izan egun Bizkaiko iparraldean aurkitzen dugun azentuera sisteman bigarren silaban doinu igoera ez-kontrastibo bat dugula. Doinu igoera hori, nahiz eta informazio lexikorik ez eduki, H*-ren bidez gauzatzen den azentu lexiko bezala berrinterpretatu zen, erdialdeko sistemako +2 (H*) azentu ez-markatua sortuz (Hualde, 2003). Aldaketa historiko hau Elordietak eta Hualdek (2003) esperimentalki erreplikatu ahal izan dute egungo hiztunak baliatuta, eta horrek egiantzekotasun handia ematen dio Hualdek aurkeztutako hipotesiari.

Azkenik, bai Egurtzegik eta Elordietak (inpr.), bai Hualdek (inpr.), Mitxelena (1977/2011) proposamena onartzen dute: Ekialdeko azkenaurreko silabako azentua bigarren silabako azentueratik garatutako berrikuntza bat dela, alegia. Azentuaren kokapen aldaketa hiru silaba duten hitzetan gertatutako berrinterpretazio baten ondorioa izango litzateke. Hiru silabako hitzetan, azentua erdiko silaban erortzen da, eta, silaba hau, aldi berean bigarrena eta azkenaurrekoa izango litzateke. Hiru silabako hitzak *-a* artikularen gramatikalizazioaren ostean askoz ugariagoak izango ziren, eta maiz agertu zitekeen ambiguitasuna inguruko hizkuntzen ereduari jarraikiz ebatzi zuten. Izan ere, zubererak azentu ez-markatua azkenaurreko silaban du eta markatua azkenengoan, luzaroen ekialdeko euskalkiekin kontaktuan egon den gaskoiak bezala kasu bietan (cf. Egurtzegi & Elordietak, inpr.). Azkenaurreko silabako azentuera gaur

egun zubereran aurkitzen dugu, baina erronkarian eta zaraitzueran ere aurki zitekeen hizkera hauek desagertu aurretik. Garai zaharrago batean, ekialde zabalagoa ere hartu izan zuela dirudi (ikus Hualderen Leizarragaren euskararen azentueraren analisia).

Beraz, momentuz Goizuetako azentuera alde batera utzita, beste hiru sistema nagusien kronologian adostasuna dagoela esan daiteke. Artikulu honetan konparatutako bi proposamenen arabera, hiru sistemen artean zaharrena mendebaldeko azentuera izango litzateke, sistema honetatik erdialdekoa sortuko litzateke beranduago, eta, amaitzeko, erdialdeko sistematik ekialdeko sistema prosodikoa garatuko litzateke.

4. GOIZUETAKO SISTEMAREN SORRERA

Beste hiru azentu sistema nagusien kronologia zehaztu ostean, § 2 atalean aurkeztutako Goizuetako sistema zein momentutan garatu zitekeen zehaztea baino ez zaigu geratzen egungo euskal azentuera mota nagusien kronologia bat osatzeko. Hala ere, aurreratu dugun bezala, puntu honetan bi proposamen ezberdin aurkezten zaizkigu, Goizuetako sistemaren garapena modu ezberdinean azaldu eta garai ezberdinetan kokatzen dituztenak.

4.1. Hualde (inpr.)

Hualderen (inpr.) iritziz, Goizuetako azentuera zuzenean Euskara Batu Zaharreko azentueratik garatu bide zen. Horrek Euskara Batu Zahararentzako sistema berri bat proposatzea dakar, bere aurreko lanetan mendebaldeko sistema baitzuen euskararen garai komuneko azentueratzat (Hualde, 2012 eta bere beste hainbat lan). Hualderen (inpr., § 7) Euskara Batu Zaharraren azentueraren deskribapen laburra hurrengo da: «In the most straightforward reconstruction, Old Common Basque had both a contrast between two types of lexical accents H* and L* (from different historical sources) and a class of unaccented words. Accent was cued by pitch and, like in modern northern Bizkaian varieties, there were also phrase-initial pitch rises». Hualdek, beraz, oso sistema konplexua aurkezten du, bi doinu azentu ezberdinez gain hitz azentugabeak ere dituen, baita Bizkaiko iparraldeko esaldi hasierako doinu gorakada ere.

Hualdek (inpr., § 5.2) bi doinu azentuak Euskara Batu Zaharraren barnean garatu zirela proposatzen du, baina garai ezberdinetan. Goiko azentua (H*) lehendabizi garatuko litzateke, mailegu zaharrenean bidez. Beheko azentua (L*) beranduago sortuko litzateke, morfologia konplexua kateatzearen ondorioz. L*-ren sorrerarako bi arrazoi posible aipatzen ditu: morfemen artean gehitu bide zen glotalaren eraginaren ondorioz (cf. Hualde, 2007), eta bokal bilkuren ondorioz. Behin Euskara Batu Zaharraren azentuera sistemak hitz azentugabeak +2 bilakatu zituen berranalisia- ren ostean (§ 3 atalean azaldu bezala, baina beste garai batean), Goizuetan ezagutzen dugun sistema garatuko litzateke. Amaitzeko, analogiak hitz askoren azentua aldatuko luke, gaur egun ez baitago azentuera klaseak guztiz zehazterik soilik etimologiari begiratuta. Honen kasu argi bezala maileguak aipatzen ditu: bi silabako hitzen kasuan, espero genukeen hitz hasierako H* azentua aurkitzen dugu (*páke* <

lat. *pacem*, *gáuzā* < lat. *causa*), baina hiru silaba duten mailegu zaharrek L* erakusten dute honen ordez (cf. *àrima*).

Hualdek ez ditu sistema guztiak kronologia erlatibo batean ezartzen. Nahiz eta argi uzten duen (5)en aurkeztu dugun sistemen garapena (i.e., Euskara Batu Zaharra > mendebaldekoa > erdialdekoa > ekialdekoa), ez du Goizuetako sistemak jarraipen honetan izango lukeen kokapena modu esplizituan adierazten. Hala ere, bere proposamenaren arabera Goizuetako sistema Euskara Batu Zaharretik zuzenean sortu zela uler daiteke, mendebaldeko sistemarekin batera baina honetaz aparte garatuko litzatekeela, agian.

4.2. Egurtzegi & Elordieta (inpr.)

Bestalde, Egurtzegiren eta Elordietaren (inpr.) arabera, Goizuetako sistemak garapen berantiarragoa izango luke. Zehatzago, bigarren doinu azentua (L*) izango litzateke beranduago garatu izan den sistema horren bereizgarria. Autoreek proposaturiko Euskara Batu Zaharraren sisteman hitz azentudunak eta azentugabeak egongo lirateke, eta ez litzateke doinu azentu bakar bat baino egongo (H*, alegia). Hualdek bezala, mailegu zaharrenak goiko (H*) azentuarekin hartu zirela proposatzen dute, eta, hauen bidez, Euskara Batu Zaharraren parte zen hitz azentudunen taldea osatu zela. Latinetik hartutako mailegu horietan hitz oxitonorik ez zegoenez (ikus, beste askoren artean, Lahiri et al., 1999, 378.-383. or., latinaren azentueraren laburpen baterako), Euskara Batu Zaharreko hitz azentudunek azentua azkenengoa ez den beste silaba batean zuten halabeharrez.

Gorago azaldu bezala (§ 3), egungo euskalkien banaketaren aurreko euskarak izango lukeen sistema komun honetatik gaur zabalduen dagoen erdialdeko sistemara heltzeko bata bestearikiko oso lotura estua duten bi aldaketa nagusi proposatzen dituzte. Bate-tik, azentueraren eragin eremua esalditik hitzera pasa behar da, eta, horrekin batera, azenturik ez duten hitzei azentu molde ez-markatu bat egotzi behar zaie. Lehendabiziko aldaketa mailegu latindarren kopurua handitzearekin etorri zen, azentu lexikoa zuten maileguen presentziak euskaraz hitz fonologikoaren garrantzia pixkanaka baina nabarmen handitzea ekarri zuelako. Bigarren aldaketak, azentu ez-markatuaren sorrerak, lehen aldaketa horrekin lotura zuzena izan zuen, biak aldi berean garatu behar baitziren halabeharrez. Azentuaren esparrua hitz hasieratik zenbatzea eta azentuera ez-markatua bigarren silaban (+2) egotea sistema zaharrak esaldiaren bigarren silaban zuen doinu igoera ez-kontrastiboa azentu bezala berrinterpretatzeari zor zaizkio. Maileguen azentuak doinu berarekin gauzatzen zirenez, sistema doinu azentu bakarrarekin osatu zen, honakoa lehen silaban (+1, hitz markatuetan) edo bigarrenean (+2, euskal hitzetan batez ere) egon zitekeela (Egurtzegi & Elordieta, inpr., § 3.2.1-2).


Azentuera sistema horretatik Goizuetako sistemara pasatzeko aldaketa bakarra behar dugu: bigarren doinu azentuaren sorrera. Egurtzegiren eta Elordietaren arabera (inpr., § 3.3.2), L* doinu azentu berria forma pluraletan eta konposatuetan hitz bakarrean bi azentu batu zirenean sortu zen: bigarren H*+L-ak lehenengo H*+L doinu kontornoaren kokapena aurreratzeraz eraman zuen, H+L* bezalako zerbait bihurtzeraz behartuz (aurretik esan bezala, L* bezala ere analizatu izan dena, cf. Hualde, inpr.).

Beraz, doinu mugimendua aurreratu zen ($H^*+L > H+L^*$), baina aurreko silaban kokatzera heldu gabe. Kasu gehienetan, baina ez beti, bigarren hitza zenaren azentua lehenengo hitzaren azentuaren aldaketa eragin ostean galdu zen. Galera hori pluraletan orokorra den bitartean, konposatu askotan oraindik bi azentu entzuten dira egun.

Pluraleko formetan ia modu sistematikoan ikus dezakegu L^* azentua egungo Goizuetako euskarari (sistematikoki lau silaba baino gutxiago duten hitzetan), baina konposatuetan ez da horren sistematikoa. Forma pluraletan dagoen L^* -ren erabileraren sistematikotasuna ikusita, L^* doinu azentua pluralaren gramatikalizazioarekin batera fonologizatu zela proposatzen dute Egurtzegik eta Elordietak (inpr.), ondorioz berantiar samarra izango litzatekeela.

Egurtzegiren eta Elordietaren (inpr.) aburuz, beraz, Goizuetako azentu sistema erdialdeko sistematik garatu zen (eta ez Euskara Batu Zaharretik zuzenean), atzizki pluralaren gramatikalizazioaren prozesuaren (azpi-)gertakari bat bezala. Behin Goizuetako azentuera (5) adibideko eskemari gehituta, (6) adibideko eskeman bezala geratuko litzaziguke.

(6) Egurtzegi & Elordietak (inpr.) laneko kronologia proposamena



Honenbestez, aipatu bi proposamen arteko erkaketa egitea baino ez zaigu geratzen. Zein dira ikuspegi bakoitzak dituen abantailak eta arazoak?

5. BI PROPOSAMENEN ARTEKO ALDERAKETA

Bi proposamenen artean ezberdintasun nagusi bat dagoela esan daiteke: bi doinu azentuen arteko oposaketa Euskara Batu Zaharraren ezaugarri bezala berreraikitzea (edo ez). Horrekin batera, bi ikuspegi arteko beste ezberdintasun garrantzitsu bat euskal sistema prosodikoaren eboluzioa nolabait «ardazten» duen aldaketan ikus daiteke. Alde batetik, Hualderen (inpr.) proposamenak oinarria azentuazioaren sorreran jartzen du; noiz eta nola joan ziren gehitzen bi azentu lexikoak dituzten hitzak, alegia. Bestetik, Egurtzegiren eta Elordietaren (inpr.) proposamenean azentuaren domeinuaren aldaketak ere badu garrantzi handia: noiz eta nola pasatzen da azentua esaldiari dagokion fenomeno bat izatetik hitzari dagokion ezaugarri lexiko bat izatera. Agian ez du irudiko ezberdintasun hori erabakigarria denik (azken finean, azentua esaldi mailatik hitz mailara pasatzea azentuazioaren sorrerari lotzen zaion aldaketa da), baina Goizuetako azentueraren kokapen kronologikoa baldintzatu dezake.

Izan ere, Hualdek (inpr.) ez du argi uzten Euskara Batu Zaharraren azentuaren eragin eremua zein zen. Azentuazioari dagokionez, Euskara Batu Zaharrean azentugabeko hitzak zeudela proposatzen du, H* eta L* azentudun hitzekin batera. H* eta L* doinu azentuen oposaketa Goizueta inguruan¹ bakarrik gorde denez, Goizuetako azentuera sistema ikaragarri kontserbatzailea izango litzatekeen irla linguistikotzat hartu beharko genuke, nahiz eta euskal eremu geografikoaren erdian egon. Goizuetako sistemaren kokapen geografikoa, beraz, Bartoli (1925) eta neolinguisten hatsarreen kontra joango litzateke, non arkaismoak saihetsetan espero diren (ikus Camino, 2009, 146.-147. or.; Zuloaga, 2020, 56.-59. or.).

Egurtzegik eta Elordietak (inpr.) ez dituzte bi doinu azentuak Euskara Batu Zaharraren sistemarako proposatzen. Honen orde, Goizuetako eta erdialdeko sistemen arteko antzekotasun nabarmenari erreparatzen diote (inpr., § 3.3.1). Izan ere, bi sistema horien artean ezberdintasun nagusi bat baino ez dago: doinu azentu kopurua, alegia. Bi sistemen arteko antzekotasunak argi ikusten dira (4) adibidean zerrendatutako Goizuetako azentueraren ezaugarri nagusiak erdialdeko azentueraren ezaugarri nagusiekin konparatuz gero, (7) adibideak erakusten duen bezala.

(7) Goizueta eta erdialdeko azentueraren ezaugarri nagusiak

	Ezaugarria	Erdialdea	Goizueta
i.	Hitz mailako azentua	✓	✓
ii.	Hitz guztiak azentudunak	✓	✓
iii.	Azentuaren esparrua hitzaren lehen bi silabetara mugatua	✓	✓
iv.	Azentu ez-markatua bigarren silaban	✓	✓
v.	Bi doinu azentu kontrastibo (H*+L / H+L* edo H* / L*)	x	✓

Laburbilduz, Hualderen proposamenak Goizuetako azentuera oso kontserbatzailetzat du; aldiz, Egurtzegi eta Elordietaren proposamenaren arabera, Goizuetako sistema bere inguruan guztiz zabalduz dagoen erdialdeko sistematik garatutako berrikuntza baten ondorio izango litzateke.

5.1. Berreraikitako sistemaren konplexutasuna eta paralelo tipologikoak

Hualdek (inpr., eta lehenago ere), bere euskal azentueren berreraiketetan, sistema modernoek dituzten ezaugarri bereizgarri zenbait aurreko hizkuntza egoeretara eraman izan ditu, ezaugarri horiek bigarren maila bateko berrikuntzat aurkeztu orde. Aurreko lanetan bazeuden antzeko erabakiak (Hualde, 1993 et seq.), Bizkaiko iparraldeko hitz azentudun vs. hitz azentugabe oposaketa (eta sistema bereko esaldimailako azentu ereduarekin) garai zaharragoetara eramatea kasu, baina orain arte,

¹ Nahiz eta Goizuetako azentuera H* eta L*-dun sakonki deskribaturiko sistema bakarra izan, errebisore baten aipatu bezala, inguruko herrietan (Oiartzun eta Zubietan, kasu) ere antzeko sistemak egon daitezke. Ikus Hualde (2018) Oiartzungo azentuera zaharrarari buruz.

Goizuetako sistema euskal azentuen kronologian sartzen saiatu ez garen bitartean, alegia, berreraiketa molde horrek egiantzeko sistema bat sortzen zuen, Bizkaiko iparraldean (Getxon, kasu) aurki ditzakegun sistemetatik ez oso ezberdina. Arazoa mendebaldeko azentu sistemen bereizgarriak dituen berreraikitako sistema bati Goizuetako sistemak erakusten duen bi doinu azenturen arteko oposaketa gehitzean sortzen da.

Izan ere, Hualdek oso sistema konplexua berreraikitzen du. Berreraikitako ezaugarri guztiak konbinatu ostean, hitz azentugabeak, lehen edo bigarren silaban H* azentua duten maileguak, (lehen edo) bigarren silaban L* azentua duten konposatuak, eta esaldi hasierako doinuaren gorakada dituen hizkuntza proposatzen du Hualdek. Ezin izan dut horrelako sistema baten paralelo tipologikorik aurkitu –zeinetan hitz gehienak (konposatuak ez diren euskal hitzak) azentugabeak diren eta azentudun gutxien artean bi doinu azentu kontrastibo (H* eta L* edo beste) aurki daitezkeen– eta Hualdek (inpr.) ere ez du berreraikitako sistemaren paralelorik aurkezten.

Kontuan izan behar da, hasteko, hitz azentudun eta azentugabeen arteko oposizioa ez dela tipologikoki batere ohikoa: japoniera dugu kasurik ezagunena². Japonierarekin batera, somaliera ere aipa genezake, agian Bizkaiko iparraldeko sistemaren paralelo egokiagoa, non azentua morfologikoki ezartzen den (Hyman, 1981). Hala ere, zilegi da hitz azentudun eta azentugabeak dituen, eta esaldi mailako azentuera duen sistema bat berreraikitzea Euskara Batu Zaharrerako, horrelako sistema bat egun Bizkaian aurki daitekeelako. Horrelakoa da, hain zuzen, Egurtzegik eta Elordietak (inpr.) Euskara Batu Zaharrarentzako proposaturiko sistema. Haien berreraiketak doinu azentu bakarra du (H*), Goizuetako sistemaren bigarren doinu azentua (L*) beranduago gertatutako bilakabide batetik deribatzen baitute, erdialdeko sistemaren barruan garatuko litzatekeela. Hualderen aurreko lanek ere Euskara Batu Zaharraren azentuera Getxo-Gernika eremuko sistemen antzekotzat zuten (Hualde, 2012 eta aurrekoak), baina Goizuetako sistema berreraiketean gehitzeak proto-sistema konplexuago bat proposatzera eramán du.

5.2. Banaketa geografikoa eta kronologia

Zenbaitetan aipatua izan da (i.a. Egurtzegi & Elordieta, 2013, inpr.; Hualde, 2007, 2012, inpr.) hitz azentudunen eta azentu markatua dutenen arteko paralelismoa. Bizkaiko iparraldean azentudunak diren hitz asko azentu markatuarekin agertzen zaizkigu erdialdeko sisteman, haien izaera berezia ekialdekoak ez diren euskal hizkera askotatik zabaltzen dela. Horrek hitz azentudunen kategoriaren zahartasunaren alde egiten du, baina ez du hitz hauen beste ezaugarriak zaharrak direnik ziurtatzen, eremu zabal

2 Japonierak hitz mailako azentua du, eta ez esaldi mailakoa Bizkaiko iparraldeko sisteman bezala. Gainera, japonieraz hitz azentugabeen klasea emergentea dela dirudi, eta mailegu zenbait eta atzerriko leku izenak kategoria honi gehituz joan zaizkiola (cf. Kubozono & Ogawa, 2004). Bizkaiko iparraldean ez dugu hitz azentugabe berrien eraketaren ebidentziarik, nahiz eta hizkera batzuetan mailegu berriak azentugabeak izan daitezkeen jatorrizko hizkuntzan oxitonoak baldin badira. Hori baino gehiago, kontrakoa ikusi dugu euskaraz, hau da, hitz azentudunak kategoria emergente bezala. Garai batean hitz guztiak azentugabeak ziren, eta latinetik harturiko maileguak lehendabiziko hitz azentudunak izango lirarteke hizkuntzan.

batean antzeko modu batean gordetzen ez diren bitartean. Esate baterako, hitz jakin batek eremu zabal batean azentua lehen silaban izateak, hitz horren lehen silabaren izaera azentudun zaharraren alde egiten du (nahiz eta ez duen bermatzen). Eremu zabal horretan lehen silaban azentua duen hitz horrek Goizuetan L* azentua izateak, ordea, ez du L* horren zahartasuna inondik inora bermatzen, bi doinu azenturen arteko oposizioa beste eremu geografiko batean lekukotzen ez den bitartean gutxienez. Hitz prosodikoki markatuen hedadura geografiko zabalak –azentudunak mendebaldean, azentuera berezidunak beste eremuetan– kategoria hau dialektalizazioaren aurretik sortu zela iradokitzen duen bitartean (latinetik hartutako maileguen kasuan bezala), L* bigarren doinu azentua Goizuetarekin kontaktuan ez dagoen beste hizkera batean arrastorik utzi ez izanak (are gehiago, erdialdeko hizkera/eremu batean baino ez agertzeak) ez du L*-ren zahartasunaren alde egiten³.

Eremu oso zabal batean azentu molde bereziak erakusten dituen hitz talde bat plurale-na da. Izan ere, azentuari dagokionez, pluralak mendebaldetik ekialdera dira bereziak. Haien berezitasunak kategoria honen zahartasunaren aldeko ebidentzia irudi dezakeen arren, pluralen zahartasuna ez da zuzenean onartu beharreko zerbait. Sistema nagusien artean berriagotzat dugun ekialdeko sistema sortu zenean, aurreko garai batean azentuera markatua zuten hitz guztiak (mailegu eta konposatu zaharrak kasu) azentuera ez-markatura pasa ziren [+2] > [-2] aldaketaren ostean (cf. Egurtzegi & Elordieta, 2013). Hala eta guztiz ere, forma pluralak azentuera berezia erakusten dute zubereraz. Horrek pentsarazten du beste hitz markatu taldeak baino beranduago sortu zela hitz pluralena (eta Euskara Batu Zaharra baino askoz beranduago), nahiz eta pluralak euskal azentuera sistema nagusi guztietan markatuak izan. Izan ere, pluralen gramatikalizazio berantiarren ebidentzia zabala dugu (cf. Manterola, 2015), eta ondorioz hitz pluralen azentuera markatua ezin dugu Euskara Batu Zaharreraino eraman. Horrekin batera, aipatu behar da pluralen azentuazioa oso ezberdina dela sistema prosodiko batetik bestera: mendebaldean aurreko silaban ezartzen dute azentua, erdialdean lehen silabara eramaten dute, ekialdean azentua erakartzen dute, eta Goizuetan doinu azentua aldarazten dute (Egurtzegi & Elordieta, inpr.). Nahiz eta berezitasunen hedapenak pluralen izaera prosodiko markatua zaharra dela iradokitzen duen, molde jakinen garapena berandura arte osatu ez zela ere iradokitzen du, horien arteko bariazioa handia baita. Egurtzegik eta Elordietak (inpr.) bezala plurala eta Goizuetako bigarren doinu azentua (L*) lotuko baditugu, H* eta L*-ren arteko oposizioa ere ez genuke Euskara Batu Zahararentzako proposatuko.

Hitz pluralen taldea bigarren doinu azentua osatzen duen talde nagusia izanik ere, L* erakusten duen beste talde handia konposatuena da. Konposatu guztiek ez dute L* erakusten, ezta zahar antza duten konposatu guztiek ere: ikus *artáburu*, *artálde*, *artzái*, *emákume*, *gaztánbara*, eta abar; konposizio prozesu zaharra erakusten duten arren (e.g. *ardi* > *art-*), hitzok bigarren silabako H* azentu ez-markatua dute Goizuetan. Konposatuen taldearen barnean dagoen homogeneousitasun falta ikusita, eta konposatuak

3 Kontuan izan H*-ren zahartasunaren ebidentzia Bizkaiko iparraldean gordetako latineko maileguetan eta, nolabait, esaldi mailako bigarren silabako H*-n aurkitzen dugula, nahiz eta azken hau kontrastiboa ez izan.

etengabe sortuak izan direnez denboran zehar (eta sortzeko moldeak ez direnez beti uniformeak izaten hizkeratik hizkerara), hauek ere ezin dira L* doinuaren zahartasunaren aldeko ebidentziatzat hartu.

Honenbestez, hitz azentudunen kategoria Euskara Batu Zaharreko azentuera sistemaren parte zela proposatzeko behar beste ebidentzia dagoela esan daiteke. Aitzitik, hori ez da, inondik inora, Goizuetako L* doinu azentuaren kasua. Kontrakoa defenditzeak –hau da, L* berandu sortu zela, Egurtzegik eta Elordietak (inpr.) proposatu bezala–, errazago dirudi: Goizuetako sistemaren, mailegu zahar gehienek (bi silabako hitzak: *páke* < lat. *PACEM*, *gáuzá* < lat. *CAUSA*, etab.) eta konposatu zahar askok (azentuera ez-markatua erakusten duten *artáburu*, *artálde*, *artzái*, *emákume* eta *gaztánbara*, esaterako) H* erakusten dute, eta pluralek, ordea, L* erakusten dute oso modu sistematikoa (eta salbuespen gutxien azalpenerako, ikus § 5.5 beherago).

5.3. H* doinu azentu ez-markatuaren sorrera

Bi proposamenek Goizuetako sistemaren hitz ez-markatuen bigarren silabako H* doinua esaldi mailako muga doinua den bigarren silabako H-tik deribatzen dute, Hualdek aspaldi erdialdeko sistemarentzako proposatu bezala (Hualde, 2003, i.a.). Hualderen hipotesia aurreko sistema batean hitz ez-markatuak esaldi hasieran edo isolamenduan zeudenean L(H_n)H* sekuentziaren bidez gauzatzean oinarritzen da. Beste modu batean esanda, aurreko garaietako (e.g., Euskara Batu Zaharreko) patroiz ez-markatua oraingo mendebaldeko sistemaren antzekoa zela onartzen dute proposamen biek.

Egurtzegiren eta Elordietaren (inpr.) berreraiketean, Euskara Batu Zaharrek mendebaldeko sistemaren moduko bat izango lukeenez, aitzin-erdi-ekialdeko sistema sortzeko bigarren silabako doinu igoera ez-kontrastiboa azentu ez-markatu bezala berrinterpretatzeak egiantzekotasun handia du. Gogoan izan mailegu zahar gehienek (hau da, bi silabako hitz guztiek eta luzeagoak ziren zenbaitek) aurretiaz ere H* zutela lehen silaban, eta luzeagoak ziren mailegu zenbaitek bigarrean. Hortik abiatuta, gainontzeko euskal hitzei bigarren silaban H* doinua ezarri izana oso posiblea dirudi. Hasteko, bigarren silabak aurretik ere kontrastiboa ez zen antzeko doinua maiz izaten zuen, esaldiaren lehen hitza zenean alegia. Horrekin batera, garai horretan H* maileguen azentua markatzeko erabiltzen zen, eta maileguak ziren talde azentudun nagusia (edo bakarra). Honenbestez, arazo gutxi dakarren eta egiantzekotasun handia duen aldaketa baten aurrean gaude, esperimentera ere erreproduziturik izan dena (cf. Elordietak & Hualde, 2003). Halaber, Hualdek (inpr., eta aurreko lanetan) mendebaldeko sistematik erdialdeko sistemara pasatzeko proposatutako aldaketa da.

Bestalde, Euskara Batu Zaharreko sistemak ordurako H* vs. L* moduko oposizio bat bazuen, Hualdek (inpr.) proposatu bezala, kontua izugarri konplikatzen zaigu. Hasteko, ez da batere argi geratzen nola bereiziko liratekeen lehen silaban L* azentua duen hitz markatu bat L(H_n) moduko egitura duen hitz ez-markatu batetik, batez ere silaba bakarretako hitzen kasuan. Bi hitzek antzeko egitura baldin badute –esaterako, L(H_n) vs. L*(H_n) edo L*(M_n)–, zergatik ez ziren berrinterpretatu lehen silaban L* zuten hitzak ez-markatuak bezala (hau da, H* doinu azentua bigarren silaban), edota hitz

ez-markatuak hitz hasierako L* baten bidez (hau da, L* doinu azentua lehen silaban) esaldi mailako azentuera hitz mailako azentuera bihurtu zenean? Edota bigarren silaban L* zuten hitzak doinu horrekin kontrastatzeko beharko zuten lehen edo hirugarren silabako H > H* berrinterpretazio baten bidez? Hualdek (inpr.) ez ditu bere proposamenen egoera horiek jorratzen, eta ondorioz ez du galderontzako erantzunik eskaintzen.

Laburbilduz, doinu azentu bakarra dagoenean oso egiantzekoa dirudien berrinterpretazioak sekulako arazoak sortzen ditu Hualderen (inpr.) Euskara Batu Zaharraren sistematik abiatuz gero. Hualderen sistemak hitz azentudunen lehen edo bigarren silaban L* edo H* doinu azentu kontrastiboak izateak hitz azentugabeen esaldi mailako LH(H_n)(H*) egitura prosodikoa denbora luzez mantentzea zaildu egiten du. Modu berean, berreraikitako sistemak hitz azentudunen lehen edo bigarren silaban L* eta H* doinu azentuen arteko oposaketa izateak hitz azentugabeen LH(H_n)(H*) egiturak eragingo lukeen bigarren silabako H* ez-markatuaren berrinterpretazioa asko zailduko luke.

5.4. L* doinu azentu markatuaren sorrera

Proposamen biek H* markatuaren sorrera mailegu latindar zaharrei egozten diete, mendebaldeko erromantzeetan espero genitzakeen azentuaren bereizgarri akustikoen artean doinu igoera bat dugulako⁴. Mailegu latindarretan sistematikoki gauzatuko litzatekeen bereizgarri akustiko bat hitz hauen azentuaren ezaugarri nagusitzat hartzeak, beraz, ez luke arazo handirik sortuko. L* doinu azentuaren sorrerarako, ordea, bi proposamen ezberdin ditugu, lan bakoitzak bat aurkezten baitu.

Hualderen (inpr.) kasuan, bere proposamenaren oinarrian /ʔ/ hotsaren eragina aurkitzen dugu. Hualderen (2007) arabera, euskararen garai zaharretan hitz konposatu baten bi kideen artean –edota erro eta atzizki baten artean– trantsizio glotal bat gehitu bide zen. Hualdek (2007) morfema muga askotan gehitzen omen ziren /ʔ/ hauei egozten dizkie konposatu zaharren lehen kidearen amaieran ikusten ditugun prozesu ugari, hala nola bokal altuen galera, bokal ez-altuen neutralizazioa (i.e. /-a, -e, -o/ > /-a/), eta herskariaren ahoskabetze eta neutralizazioa (/b, -d, -g, -p, -t, -k/ > /-t/). Modu berean, /ʔ/-k hitz azentudunak sortu zituela ere proposatzen du, konposatuaren lehen kideari L* doinu azentu bat gehituz (inpr., § 5.2). Hualderen (29) adibidean (inpr.) agertzen diren bi berreraiketak hona ekartzen ditugu (8) adibidean:

- (8) L*-ren sorrera Hualderen (inpr.) arabera
- | | | |
|-------------|---|---------|
| *gizonʔhaga | > | gizònak |
| *lehenʔgusu | > | lèngusu |

4 Interesgarria izan daiteke ere euskararekin lehendabizi kontaktuan izan zen mendebaldeko latinaren azentuaren gauzatze fonetiko hobeto ezagutzea. Afera honetan interesgarri egiten da Frantziatik datozen hizkuntzalari historiko zenbaiten tradizioak proposatzen duena: latin klasikoak doinu azentu mota bat zuela, hain zuzen ere, eta IV. mendera arte ez zela intentsitate azentu bihurtu (cf. Benloew, 1847; Benloew & Weil, 1855; Bourciez, 1967; Meillet & Vendryes, 1924; Vendryes, 1902).

Hualdek (2007) aurkeztutako herskari glotalaren hipotesia interes handikoa dela uste dut, bai euskal azentuera sistemetan eta baita konposatuen eraketan aurkitzen ditugun fenomeno zenbait azaltzeko aukera ematen duelako, eta horregatik merezi du hipotesi honen alde indartsuak eztabaidatzea, baina baita bere gabeziak ere. Horien artean, bi arazo nagusi aurkeztuko ditugu: alde batetik, /ʔ/-ren sorrerarako egon litezkeen arrazoiak; bestetik, /ʔ/ batetik L* baten sorreraren egiantzekotasuna, eta zein bokali atxikiko litzaiokeen doinu berri hau.

Hasteko, geure buruari galdetu beharko genioke: zergatik sortuko litzateke /ʔ/ konposatuen bi atalen artean? Hizkuntza zenbaitetan, alemaniera kasu, intonazio mugek segmentu glotalak sortu izan dituzte (cf. Blevins, 2004). Honakoak muga doinuen ondorioz sortu ohi dira, bokal aurreko (eta bereziki bokal arteko) kokapenean. Euskara Batu Zaharraren sistemak (edo horren aurrekoak) egun iparraldeko bizkaieran aurkitzen dugun LH(H_n)(H*) esaldi mailako azentutik hurbil dagoen sekuentzia bat bazuen, esaldiaren bigarren silaban hasi eta honen amaierara arte mantendutako doinu altua egongo litzateke kokapen horretan, segmentu glotal bat sortzeko aukera emango lukeen aldaketa tonal argirik gabe.

Euskara Batu Zaharra bezalako hizkuntza batean morfema mugetan /ʔ/ sortzeko aukerak gora-behera, segmentu horrek L* doinu azentu bat sortzea behar du Hualderen proposamenak. Gauza jakina da segmentu eta konfigurazio glotalak –ahotsa eta erregistroa kasu– doinu edo F0 intrintsekoa dutela, eta doinu hori estrintseko bihurtuz gero fonologizatu daitekeela tonogenesia deitu ohi den prozesua aurrera eramanez (ikus Hyman, 1976, beste askoren artean). Hala ere, kasu honetan azpimarratu behar da hmongera (Ratliff, 2015) edota vietnamera (Haudricourt, 1954) bezalako hizkuntzetan, kodako /ʔ/ herskari glotalaren galerak honen aurreko bokalean goranzko edo goiko H doinu baten gehiketa ekarri duela, eta ez beheanzko edo beheko L doinu batena, Hualdek (inpr.) euskararentzako proposatu bezala. Morfemen arteko trantsizio segmentu baten galerak beheanzko edo beheko L* doinu bat sortu beharko balu, balizko segmentu hori /h/ izatea esperoko genuke, eta ez /ʔ/.

Bestalde, /ʔ/ herskari glotal batetik H* garatzean, doinu hau hotsaren alboan dagoen bokalean sortu ohi da. Hau da, garatuko den H* doinu berria /ʔ/-ren F0 intrintsekoaren fonologizazioaren ondorio den heinean, /ʔ/-ren galeraren aurretik /V/ eta /ʔ/-ren arteko kontaktua beharrezkoa dela ematen du. Hala ere, horrelakorik ez da gertatzen Hualdek (inpr., 29. adibidea) ematen dituen adibideetan –gorago (8) adibidean agertzen direnak–; kasu bietan (*gizonʔhaga eta *lehenʔgusu) gaur arte galdu ez den -n baten ostean berreraikitzen du *ʔ, herskari glotalak aurreko bokalarekin inongo kontakturik ezin duela izan. Hualderen hipotesiak doinu berria konposatuaren lehen kidearen azken silaban garatzea behar duenez –eta, ezagutzen ditugun paralelo tipologikoen arabera, /ʔ/-ren eraginez doinu bat garatzeko /Vʔ/ sekuentzia behar denez– silaba honen egiturari begiratuko diogu.

Hasteko, determinatzailearen gramatikalizazioa osatu gabeko garai batean –eta Lakarraren (1995 eta hurrengoak) CVC teoria aintzat hartuta–, ez dugu bokalez

amaitzen diren horrenbeste euskal hitz (erro) espero⁵. Edonola ere, konposizio prozesuek lehen kidearen azken bokala bereziki erasan zuten. Konposatu zaharretan jazo ziren prozesuak kontuan izanda, hurrengo aukerak aurkezten zaizkigu (cf. Michelena, 1977/2011): konposatuaren lehen kidea hiru silabakoa edo luzeagoa baldin bazen, bokalez amaituz gero, azken bokal hori galduko litzateke. Konposatuaren lehen kidea bi silabakoa baldin bazen, bokal altu batez amaituz gero, bokal hau ere galdu egin zen. Oro har, konposatueta /ʔ/-rekin kontaktuan egon zitezkeen bokal bakarrak silaba bateko eta bi silabako hitzetan zeuden hitz amaierako bokal ez-altuak ziren, neutralizazio baten ostean /a/ moduan gorde zirenak.

Egurtzegiren eta Elordietaren L* doinu azentuaren (eta Goizuetako sistemaren) sorreri dagokion hipotesia oso bestelakoa da. Gorago (§ 4.2) azaldu bezala, proposamen honen arabera L* doinu azentua hitz bakarrean bi H* doinu azentu batu zirenean sortu zen. Kate fonikoan bi doinu kontorno hurbil egotearen ondorioz, bigarren H* doinuak lehenengo H*-ari eragin zion doinu mugimendu hori aurreratuz eta, ondorioz, H*+L zena H+L* bihurtzera eramanez.

Doinu azentuaren aurreratzearen ondoriozko L* doinuaren sorrera pluraletan eta konposatueta gertatu zen batez ere. Pluraletan L* oso modu sistematikoan aurkitzen dugu –lau silaba edo gehiago duten hitzak salbuespen direla, ikus § 5.5 honi buruzko azalpen baterako– baina konposatueta ez dago horren argi salbuespen ugariak nola azal daitezkeen. Oso posible da konposatueta ikus daitezkeen salbuespen ugariak L*-ren garapen berantiarren ondorio izatea. Egurtzegik eta Elordietak (inpr.) pluraletan L*-ren erabilera sistematikoa dela azpimarratzen dute (konposatueta ez bezala), eta distribuzio homogeenago honek L* doinu azentua atzizki pluralaren gramatikalizazioarekin batera fonologizatu zela proposatzeko aukera ematen duela adierazten dute.

Egurtzegiren eta Elordietaren (inpr.) arabera, L* duten hitz markatuen garapena beste hitz markatu asko hizkuntzan guztiz ezarririk zeudenean jazo zen egun Goizuetan aurkitzen dugun sisteman. Hitz markatu zaharagoek lehen silaban H* zuten. Batez ere maileguk osatuko lukete kategoria markatu zaharra, baina agian baita silaba bakarreko lehen kidea zuten konposatu eta deribatu zenbaitek ere. Egungo euskalki gehienetan markatuak diren forma pluralak ez lirateke kategoria honen parte izango, atzizki pluralak oraindik gramatikalizatu gabe egongo liratekeelako garai horretan (ikus, modu berean, gorago § 5.2 azpiatalean ekarritakoa).

Izan ere, determinatzaile pluralak hitz beregainak ziren determinatzaile singularrak baino beranduago arte (Manterola, 2015, 298.-299. or.). Determinatzaile pluralak hitz independenteak zirenean berezko azentua zutela pentsa daiteke, ekialdeko sistemako hizkera zenbaitetan izen pluralek erakusten duten azentu markatuak ematen digun ebidentzia ikusita (honi buruz ikus Manterola, 2015 edota Egurtzegi & Elordietak, inpr.). Atzizki pluralek haien hitz izaera galtzean gertatu zen azentu doinu biren arteko topaketa pluralazko atzizkia zuten hitzetan, eta doinu topaketa horrek L* doinu berria

5 Determinatzailearen kronologia gorabehera, artikulua konposatuaren ostean atxikitzen da, eta ez erdian.

sortu zuen Goizuetako sisteman. Gogoan izan, § 2 atalean azaldu den bezala, ia izen plural guztiak markatuak direla Goizuetako sisteman, eta hauen doinu azentua sistematikoki beheko doinuarekin gauzatzen dela.

Gaur egungo Goizuetako euskarak hipotesi honen aldeko ebidentzia ematen digu. Izan ere, (3)ko adibideek iradokitzen duten bezala, bi doinu azentu edo intonazio ereduren arteko topaketak H^* doinu altu bat L^* bihurtu dezake. Aldaketa konposatueta sor daiteke –cf. *eó* ‘hego’ vs. *eò-aizé* ‘hego-haize’ eta *arráts* vs. *arrátsaldé*, zeintzuetan konposatuaren bigarren kidearen azentuak lehendabizikoaren azentua aldarazi duen–, baina baita aldaera sinkroniko bezala doinu azentuari intonazio eredu jakinak gainjartzearen ondorioz –esate baterako, *Atzó zen bazkaria*. vs. *Noiz? Atzò*. bezalako egituretan (cf. § 2).

Doinu azentu bakarreko sistema batek elkarrengandik hurbilegi dauden bi doinu kontornoren arteko elkarrenginaren ondorioz bigarren doinu azentu eredu bat gartzea ez da harrigarria, eta munduko beste zenbait hizkuntzatan aurki daitezke paralelo tipologikoak. Europatik atera gabe, suedierazko eta norvegierazko azentu sistemen garapenean egoera analogoa aurkitzen dugu. Hizkuntza germaniko horietan, azentuaren eta esaldi amaierako doinu kontornoaren arteko topaketa gertatu zen. Topaketa horren ondorioz, aurrez doinu azentu bakarra zena bi doinu azentu ezberdinetan banatu zen, doinu azentu bakoitza kasuan kasuko hitzaren azentuaren kokapenaren arabera ezarritik. Zehatzago, hitzaren azken silaba azentuduna edo azentugabea izateak zehaztu zuen hitz honek sistema berrian zein doinu azentu izango zuen (Lahiri et al., 1999, 368. or.; Oftedal, 1952). Euskararen kasua ez litzateke suediera eta norvegieran gertatutako hots aldaketatik urruti egongo.

Azkenik, beheko doinu berriaren sorreraren ostean, hitz markatu berriak sartu ziren doinu hau duten kategorietan (3. eta 4. klaseak, alegia), kategorien arteko mugak lausotuz. Hurrengo azpiatalean (§ 5.5) hitzen kategorien arteko aldaketak eta salbuespenen azalpen posibleak eztabaidatuko dira.

5.5. Goizuetako azentu klaseak eta hitz ezberdinen klaseen arteko distribuzioa

Goizuetan lau azentu klase bereizten dira (ikus § 2). Klaseak bi ezaugarri begiratuta ezarri zituzten Hualdek eta lagunek (Hualde & Lujanbio, 2008 eta hurrengoak): azentua lehenengo edo bigarren silaban dagoen, eta doinu azentua goikoa (H^*/H^*+L) edo behekoa ($L^*/H+L^*$) den. Honela, alde batetik, 1. eta 3. klaseek azentua bigarren silaban (+2) dute, eta 2. eta 4. klaseek lehendabiziko silaban (+1); bestalde, 1. eta 2. klaseek H^* azentua dute, eta 3. eta 4. klaseek L^* . 1. klasea (+2, H^*) ez-markatua izango litzateke, doinu azentu ez-markatua silaba ez-markatuan erortzearen ondorioz, eta beste hiru klaseak markatuak izango lirateke, azentua silaba markatuan dutelako (+1) edota doinu azentu markatua (L^*) dutelako.

Klaseen garapena desberdina izango litzateke proposamen batetik bestera. Hualderen (inpr.) ustez, 1. klasea ez diren klase guztiak Euskara Batu Zaharreko sistematik datoz, bai H^* vs. L^* eta baita azentua silaba ezberdinetan agertzea sistema horren

ezaugarritzat dituelako. Horrek espero ez den egoera bat sortzen du. Izan ere, klase ez-markatua (1. klasea) klase guztien artean garatu zen azkenengoa izango litzateke, gorago aipatutako goranzko doinu ez-kontrastiboaren berrinterpretazioaren ondorioz (Hualde, 2003; baina ikusi, halaber, hemengo § 5.3). Egoera hori ez da Egurtzegiren eta Elordietaren (inpr.) proposamenean gertatzen: autoreen arabera, H* azentua bigarren eta lehen silaban duten 1. eta 2. klaseak aurreko hizkuntza egoeraren parte ziren (aitzinerdi-ekialdeko sistemarenak, alegia). Goizuetako sistemaren aurreko aitzinerdi-ekialdeko sistemak H* azentua baino ez zuen, eta lehen silabako azentu markatu vs. bigarren silabako azentu ez-markatua zituen –hau da, Goizuetako 1. eta 2. klasea ziren azentu klase bakarrak. L* doinu azentuaren garapenarekin batera, klase horiek bikoiztu egin ziren 3. eta 4. klaseak sortuz. Berrikuntza hori hitz jakinen azentuaren kokapen silabikoa aldatu gabe gertatu zen, soilik azentu horien doinua aldatuz.

Bi proposamenean, eta seguruenik ondotik etor daitezkeen beste antzeko proposamenean ere, klase jakin batean esperoko liritekeen baina beste batean agertzen diren hitzak azaltzeko beste zenbait prozesu proposatu behar dituzte hitzek gaur egun dituzten azentu klase jakinak ahal bezain zehazki azaltzeko. Jakin badakigu item lexiko solteak azentu klase batetik bestera alda daitezkeela motibazio fonologiko argirik ez duten aldaketa analogiko edo antzekoen ondorioz. Azken urteotan azentua silaba batetik bestera aldatu duten hitzen testigantza badugu; alderatu, esaterako, Goizuetako hitzun zaharrek erabiltzen duten *árpi* ‘aurpegi’ hitzun gazteagoek erabiltzen duten *arpéi* aldaera berriagoarekin. Kasu honetan, klase markatu batean (2. klasea) zegoen hitz bat klase ez-markatura pasa da, eta ez dirudi hizkuntza barneko arrazoi fonologikoengatik izan denik. Hori baino, deskribaturiko aldaketak kontaktu hizkera baten eraginaren antz handiagoa dauka. Analogia kasu bat *nài* ‘nahi’ hitzarena izan daiteke. Honakoan, (*na.í >) *nái > *nài* berreraikiko genuke eta, izan ere, *náigabe* ‘disgustu’ eta *náigabe* ‘nahigabe (adb.)’ bezalako konposatuetan *nái*- H* doinu azentuarekin agertzen zaigu. Hitz honen kasuan, azentu aldaketa agian *nài izán* ‘desiratu’ egiturak eragindako analogiatik etor daiteke.

Analogikoak izan daitezkeen aldaketen artean, Hualdek (inpr.) hiru silabako mailegu zaharretan gertatutako aldaketa ekartzen du: *àrima* bezalakoetan, beste mailegu zaharretan ikus dezakegun H* azentuaren ordez L* azentua agertzen zaigu egungo Goizuetako euskarari. Hualdek (inpr.) salbuespen horiek analogiaren ondorioz azaltzen ditu («Analogy with plurals and other accented trisyllabic words»), baina kontuan izan behar da aldaketa horrek ez dituela antzeko egitura prosodikoa eta antzeko zahartasuna duten mailegu guztiak eragin (cf. *sékula*, esaterako).

Bestalde, Egurtzegiren eta Elordietaren azalpenetik abiatuta, beste azalpen posible bat lortu dezakegu mailegu horientzako. Izan ere, posible da garai batean egitura hori duten hitz zenbaitek azken silaban bigarren mailako azentu bat garatu izana, eta bigarren azentuak lehen azentua aldatu izana, hau da *árima > *árimá > *árimá > *àrima*. Garapen honen tarteko egoeraren adibideak gaur egun ere aurkitu ditzakegu Goizuetako euskarari, besteren artean gazt. *pícaro* >> *pikaró* edota gazt. *fósforo* >> *pòxpoló* bezalako maileguetan.

Hualdek aipatutako hiru silabako mailegu zaharrez gain, Goizuetako azentu sisteman mailegu berantiarriak ere agertzen zaizkigu L* doinu azentuarekin. Argi dago kasu horietan ez dagoela motibazio fonetikorik aipatu hitz taldea 3. eta 4. klaseetara moldatzeko, hizkuntza emailean –hau da, gazteleran– azentua ez baita beheko edo behearantzko doinu baten bidez markatzen. Klaseen distribuzio ez-etimologiko horrek momentu jakin batetik aurrera –L* azentudun hitzen kategoria jadanik ezarrita zegoenean– maileguak moldatzerakoan hauen azentua L* bihurtzen zuen erregela berri bat garatu zela esaten digu.

Mailegu moldaketa erregela horrek beste analogia mota batentzako aukera zabal-tzen du: mailegu zaharrak diren, baina egungo gaztelerazko hitzen antza duten mailegu zenbaiten azentu klaseen arteko migrazio bat gertatu izana ezin da baztertu –1. eta 2. klasetik 3. eta 4. klaseetara, hurrenez hurren (e.g. *eskóla, *árima > *eskòla*, *àrima*)–.

Azentu doinuaren aldaketa eragiten duen erregela horrekin batera, mailegu berrietan beste moldaketa erregela batzuk ere ikus daitezke, bigarren silabaren osteko azentua bigarren silabara eramaten duena kasu (e.g. *decisión* >> *dezísio* ‘erabaki’, *avión* >> *abíon* / *abíoi* ‘hegazkin’). Erregela horien trataeran ez legoke ezberdintasunik konparatutako proposamen batetik bestera: aldaketok beste garai batean garatutakoak dira, eta ez dute Goizuetako azentu sistemaren sorrerarekin lotura zuzenik.

Bi proposamenen arteko ezberdintasun nagusia konposatu zaharrenetan dago: Hualderen proposamenaren arabera, konposatu zaharrenek L* erakustea esperoko genuke, baina Egurtzegiren eta Elordietaren proposamenen ez halaberharrez. Hau da, azken proposamen honetan garatutako garaiaren arabera agertuko lirateke L*-dun konposatuak, eta ez modu orokorragoan. Beraz, konposatuei begiratu behar diegu orain.

Konbinazio forma zaharrak dituzten konposatuak dira kasu honetan interesgarrienak. Honakoek Hualdek (2007, inpr., eta beste) /ʔ/-ren eraginarekin lotzen dituen bilakabide zenbait erakusten dituzte. Horien artean, lehen kidearen amaierako bokalaren neutralizazio (–a bihurtuz, *baso* + *jaun* → *basajaun*) edo galera (**ardano* + *tegi* → *ardandegi*) dago, edota lehen kidearen amaierako herskariaren neutralizazioa (–t bihurtuz, *begi* + *ile* → *betile*) edo galera (*begi* + *gain* → *bekain*), azken galera horrekin batera bigarren kidearen hasierako herskaria ahoskabetzen dela (cf. Michelena, 1977/2011). Bilakabide horiek eta L*-ren agerpina /ʔ/-ren eraginari lotzen dizkionez, lehen kidearen azken bokal edo kontsonantearen neutralizazio edo galera erakusten duten konposatuak L* ere izan beharko lukete, betiere Hualderen proposamenaren arabera.

Hala ere, eta nahiz eta agian zenbaitetan L* ere erakutsi dezaketen, Goizuetan azentuera markatua ez da inondik inora sistematikoa konposatu zaharretan, eta ez da zaila azentuera ez-markatua duten konposatu zaharrak topatzea. Horren adibide dira *artáburu*, *artálde*, *artzái*, *emákume* edota *gastánbara* / *gastánbera* bezalakoak, zeintzuek gorago zerrendaturiko bilakabideen emaitza erakusten duten baina azentuera markaturik garatu ez duten –ez silaba ezta azentu doinuari dagokionez ere.

Horrekin batera, konposatu zaharren kronologia zertan partekatu behar ez duten atzizki zenbaitek ere L*-rekiko lotura erakusten dute. Adibide argiena (2) adibidean agertzen diren pluralen kasua da, baina hauekin batera beste atzizki batzuk ere ager daitezke. L* eragiten duten atzizkien artean, gorago aipaturiko konposatu zaharren bilakabideak ere eragiten dituen *-tza* dago (cf. *artzái* vs. *artzàntza*, *arrái* eta *arráindei* vs. *arràntza*, *ezkòndu* vs. *ezkòntza*, eta abar), baita honelako aldaketarik eragiten ez duten *-tar* (cf. *auzó* eta *auzólan* vs. *auzótar*), *-ti* (*beldürti*) eta *-(a)gi* (*beltzàgi*).

Modu berean, horren zaharrak ez izateagatik aipatutako bilakabideak halabeharrez erakutsi behar ez duten konposatu zenbaitek (e.g. *sué* vs. *suègorrí* ‘bibora’, *eó* vs. *eò-ai-zé*) H*-ren ordez L* daramate haien lehen kidean. Konposatu horietako askok bigarren kidearen azentua berandura arte mantendu dute, eta askok oraindik ere mantentzen dute. Bestela esanda, *astákeri* konposatuan, esate baterako, ez dirudi *astó* lehen kidearen azken bokalaren aldaketak (*-o* > *-a*) bigarren doinu azentuaren garapenarekin lotura zuzenik duenik. Horren ordez, konposatuaren bigarren azentua berandura arte mantentzeak konposatu hauen lehen doinua L* izatera eraman dituela pentsa daiteke. Horren adibide dira *astàpitó* / *astòpitó* konposatuak, non L* doinu azentua agertzen den bai *-a* eta baita *-o* dagoenean ere, biek ala biek H* dutela bigarren kidean.

Luze eztabaidatu dut hitz bakarrean bi H* elkartzearen ondorioz lehenaren H* > L* aldaketa. Hitzaren bigarren H* azentuaren patuari dagokionez, ordea, ez naiz gehiegi luzatu. Orokorrean, H* horrek galtzeko joera nabarmena erakusten du lehen doinua aldarazi ostean. Determinatzaile pluralaren doinu azentua modu sistematikoan galdu zen, eta egun ez da inolako plural markarik azentuarekin agertzen. Aurreko adibideetan ikusi dugun bezala, konposatu askotan bi kideen azentuak mantendu dira, baina zenbaitetan bigarrena erori eta lehendabizikoa baino ez da gorde. Bigarren azentuaren galera irudikatzen duten kasu asko aipa daitezke, baina honen ebidentzia emateko egungo Goizuetako hizkeran gordetzen den esamolde bat ekarriko dut: izan ere, *goràbera* ‘peripezia’ konposatuan galdu den bigarren kidearen H* azentua oraindik ere *gútxi goràberá* esamoldean aurki daiteke. Azkenik, aipatu behar da egungo Goizuetako euskaran konposatu baten bigarren kidearen L* batek ez duela lehen kidearen H*-an aldaketarik eragiten (cf. *ló-kulùxka* edo *ipúr-masà*).

Egurtzegiren eta Elordietaren (inpr.) hipotesiaren barnean L*-ren banaketan ikus daitekeen sistematikotasun falta hein batean azaltzen duten bi azalpen aurki daitezke, gutxienez, bi alderdi garrantzitsutan oinarriturik: hots aldaketaren kronologia eta aldaketaren testuinguru fonologikoa. Alde batetik, forma pluraletan dagoen L*-ren sistematikotasuna ikusita, L* doinu azentua atzizki pluralaren gramatikalizazioarekin batera fonologizatu zela proposa daiteke, Egurtzegik eta Elordietak (inpr.) egiten duten bezala. Hori horrela izanda, testuinguru fonologiko egokia duten plural forma guztiei eragingo lioke aldaketak. Konposatuetan, ordea, sistematikotasun falta espero genezake: garai horretan (eta ordutik aurrera, prozesua agortu bitartean) bi azentu zituzten hitzetan gertatuko litzateke aldaketa. Bestalde, hitz konposaturen batean bigarren kidearen azentua aurretiaz galdu bazen, konposatua H*-rekin agertzea esperoko genuke. Egoera hori lehen aipatutako eredu ez-markatua (1. klasea) duten konposatu zaharren kasuan ikus daiteke.

Bestalde, goian aurreratu bezala, testuinguru fonologikoan ere bila daiteke konposatuetan ikusten den sistematikotasun ezarentzako arrazoa, pluraletan argiro ikusten den bezala, non lau silaba baino gutxiago duten hitzek bakarrik erakusten duten L* haien forma pluralean, eta lau silaba edo gehiago dutenek H*. Gauzak honela, Egurtzegiren eta Elordietaren hipotesia aintzat hartuta, hitz bereko bi azentuen artean egongo lirakekeen silaba kopuruari (i.e., bi azentuen arteko distantziari) erreparatu beharko genioke, kasuan kasu. Izan ere, forma pluraletan L* bigarren doinu azentua erakusten ez duten hitzak lau silabakoak edo luzeagoak dira beti. Horietan, bi azentuen artean bi silaba edo gehiagoko distantzia egoteak bi doinu azentuen arteko eragina galarazten duela proposatzen dute Egurtzegik eta Elordietak (inpr.). Murriztapen horrek pluraletan ikus daitezkeen salbuespenak azaltzen ditu, eta antzeko murriztapen bat konposatuen kasuan ere indarrean egon zela pentsa daiteke, nahiz eta horren hitz luzeak konposatuaren lehen kide bezala topatzea zailago izan daitekeen.

Azkenik, diptongoen sorrerak azentua silabaz mugitzea ekar dezake. Lehen silabako diptongo berrien kasuan zalantza gutxi dago, hauek askotan azentua erakusten dutelako –esaterako bokalarteko hurbilkari (e.g. *éurdi* ‘eguerdi’) edo ttak (e.g. *láunbat* ‘larunbat’) baten galeraren ondoriozkoak. Hala ere, kasu batzuetan diptongorik ez da osatu (*eí* ‘hegi’, *beí* ‘begi’), eta beste batzuetan bariazioa aurki daiteke diptongoa edo hiatoa egiten duten hitzunen artean (e.g. *neú* vs. *néu* ‘negu’). Bestalde, lehen silaban diptongo «zahar» bat dagoenean azentua bigarren silaban kokatzen da gehienetan (cf. *aizé*, *auzó*, *eurí*, *gaixó*, *goibél*, *maiátz*, *neurtú*, baina *jáinko*), eta horrek azentu ez-markatua diptongo horiek hizkuntzaren parte zirenean garatu zela iradokitzen du. Bi diptongo moten artean egongo lirakeke bigarren silabako /h/-ren galeraren ondorioz sortutako diptongoak, hauek Erdi Aroaren amaiera inguruan sortuko bailirateke. Azken horien kasuan, ez da horren argi geratzen azentua lehen edo bigarren silaban agertzen zaigun, konposatuak ez diren adibide apropos askorik ez baitago eskuragarri, eta hauen artean bariazioa da nagusi (cf. *áizpa*, baina baita *maibúru* ‘mahaibururu’; *éiz* ‘ehiza’ vs. *eizátu*, *eiztári*; *óittu* vs. *oittúra* ‘ohitu(ra)’, eta abar).

6. ONDORIOAK

Lan honek Goizuetako azentuera noiz eta nola garatu zen jorratu du, gaiak euskal azentueren kronologian eta Euskara Batu Zaharraren sistema prosodikoaren berre-raiketan duen garrantzia nabarmena baita. Euskal azentueren diakronian garrantzi handia izateaz gain, gai hau Hualde (inpr.) eta Egurtzegiren eta Elordietaren (inpr.) proposamenen arteko desadostasun nagusia da. Hualdek Goizuetako sistemaren ezaugarri nagusia den bi doinu azenturen arteko oposaketa Euskara Batu Zaharrera eramaten du, Goizuetako sistemak erakusten duen azentu eredu ez-markatua garatu aurreko garai batera, alegia. Egurtzegik eta Elordietak (inpr.), ordea, bigarren doinu azentua garapen berantiarrago bati egozten diote, berrikuntza hau artikulu pluralaren gramatikalizazioaren eraginaren ondoriozkoztat baitute. Haien iritziz, Goizuetako azentu sistema erdialdeko sistematik garatu zen, bigarren doinu bat gehitzearen ondorioz sistema honen bi azentu klaseak (+2, H* eta +1, H*) bikoiztu ostean (+2, L* eta +1, L* gehituta).

Egurtzegiren eta Elordietaren arabera, L* doinu azentua hitz bakarrean bi H* azentu batzearen ondorioz sortu zen: bigarrenak lehenengo H*+L doinuaren aurreratzea eragin zuen, silaba azentudunean H+L* bezalako doinu kontorno berri bat sortuz. Honakoa lehendabizikoz pluralaren gramatikalizazioarekin gertatu zela proposatzen dute, konposatueta ez bezala pluraletan L*-ren erabilera ia sistematikoa delako. Gainera, hipotesi horrek pluraletan aurki daitezkeen salbuespen bakarrak azaltzen ditu: lau silaba edo gehiago duten hitzetan bi azentuen arteko distantzia handiagoak azentu batek bestean izan zezakeen eragina galarazi zuen.

Hualderen arabera, ordea, L* azentua konposatueta gehitu bide zen herskari glotalaren eraginez sortu zen, Euskara Batu Zaharraren garaian. Ikusi dugunez, Hualderen hipotesiak arazo zenbait dakartza. Horien artean, L*-ren ebidentziarik ez dagoela Goizuetakoa ez den (edo inguruan ez dagoen) beste hizkera batean (§ 5.2), eta aurreko bokalarekin kontaktuan ez dagoen herskari glotal batek bokalean doinu azentu bat sortarazteko zailtasuna (§ 5.4). Horiekin batera, Hualdek Euskara Batu Zaharrerako oso sistema konplexua berreraiki behar du: Euskara Batu Zaharrak euskal hitz simple azentugabeak, lehen edo bigarren silaban H* azentua duten maileguak, eta (lehen edo) bigarren silaban L* azentua duten konposatuak izango lituzke. Horrelako sistema baten paralelorik ez dut topatu, eta Hualdek ere ez ditu bere artikuluan eskaintzen (§ 5.1). Gainera, sistema simple batean oso egiantzekoa den berrinterpretazioa –esaldi mailako bigarren silabako doinu igoera ez-kontrastiboa hitz mailako H* azentu ez-markatu bezala interpretatzea– ez dirudi horren erraza Hualdek proposatutakoa bezalako sistema konplexu batean (§ 5.3).

Azkenik, bi proposamenek arazo zenbait aurkitzen dituzte azentu klase ezberdinak osatzen dituzten hitz taldeen sistematikotasun faltan (§ 5.5). Aldaketa horietako asko garai modernoan gertatutakoak dira, eta ondorioz haien azalpenak ez du proposamen bat bestearen gainetik jarriko. Halere, Egurtzegiren eta Elordietaren proposamenak H* > L* aldaketaren salbuespen zenbait azaltzeko aukera eskaintzen du hitz jakin batek izan zezakeen bi azentuen arteko distantziari begiratuta. Edonola ere, oraindik egiteke dagoen hitz zehatzen kronologiaren, aldaketa analogikoen, eta aldaketa hauen parte diren prozesu fonologikoen zehaztasunen ezagutza zabalago batek beste salbuespen asko hobeto ulertzeko aukera emango liguke.

Gauzak horrela, lan honek Egurtzegik eta Elordietak proposatutako L*-ren sorbide eta garapenak Hualdek proposatutakoak baino egiantzekotasun handiagoa duela erakutsi ahal izan duelakoan nago. Halaber, lan honetan zehar Egurtzegik eta Elordietak aurkeztutako azentu sistemen kronologia eta, ondorioz, haien Euskara Batu Zaharraren azentu sistemaren berreraiketa hobesteko arrazoi zenbait badaudela erakutsi nahi izan da. Baina, batez ere, artikulua honek Hualde eta beste ikerlari zenbaiten aurreko lan eskergari esker euskal azentuaren historia inoiz baino hobeto eta inoiz baino zehatzago ezagutzen dugula erakutsi duelakoan nago, kontsentsua lortzetik hurbil dauden alderdiak eztabaida puntuak baino askoz ugariago baitira honezkero.

7. ERREFERENTZIAK

- Bartoli, M. (1925). *Introduzione alla Neolinguistica (Principi – Scopi – Metodi)*. L. S. Olschki.
- Benloew, L. (1847). *De l'accentuation dans les langues indo-européennes tant anciennes que modernes*. Hachette.
- Benloew, L. & Weil, H. (1855). *Théorie générale de l'accentuation latine*. Durand.
- Blevins, J. (2004). *Evolutionary phonology*. Cambridge University Press.
- Bourciez, J. (1967). *Phonétique française*. Klincksieck.
- Camino, I. (2009). *Dialektologia tradizionalatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Elkar.
- Egurtzegi, A. (2014). *Towards a phonetically grounded diachronic phonology of Basque* [Doktore tesia, UPV/EHU]. <https://egurtzegi.github.io/papers/Egurtzegi2014.pdf>
- Egurtzegi, A. & Elordieta, G. (2013). Euskal azentueren historiaz. In R. Gómez, J. Gorroategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Kate-draren 3. biltzarra* (163.-186. or.). UPV/EHU.
- Egurtzegi, A. & Elordieta, G. (inpr.). A history of the Basque prosodic systems. *Diachronica* 39. <https://doi.org/10.1075/dia.20066.egu>
- Elordieta, G. (2011). Euskal azentuaren bilakaera: hipotesiak eta proposamenak. In A. Sagarna, J. A. Lakarra & P. Salaberri (arg.), *Euskaltzaindiaren XVI. biltzarra: Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina* (Iker, 26) (989.-1014. or.). Euskaltzaindia.
- Elordieta, G. & Hualde, J. I. (2003). Experimental test of a hypothesized diachronic change in Basque accentuation. In M.-J. Solé, D. Recasens & J. Romero (arg.), *Proceedings of the 15th International Congress of Phonetic Sciences* (67.-70. or.). Futurgraphic. Berrarg. in *ASJU*, 40, 293-301.
- Haudricourt, A.-G. (1954). De l'origine des tons en vietnamien. *Journal Asiatique*, 242, 69-82. Berrarg. in A.-G. Haudricourt. (1972). *Problèmes de phonologie diachronique* (146.-160. or.). SELAF & CNRS.
- Hualde, J. I. (1993). On the historical origin of Basque accentuation. *Diachronica*, 10, 13-50. <https://doi.org/10.1075/dia.10.1.03hua>
- Hualde, J. I. (1995). Reconstructing the ancient Basque accentual system: Evidence and hypotheses. In J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language* (171.-188. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/cilt.131.07hua>
- Hualde, J. I. (1997). *Euskararen azentuerak* (ASJUren gehigarriak, 42). Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Hualde, J. I. (2003). From phrase-final to post-initial accent in Western Basque. In P. Fikkert & H. Jacobs (arg.), *Development in prosodic systems* (249.-281. or.). Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110894530.249>
- Hualde, J. I. (2007). Historical convergence and divergence in Basque accentuation. In T. Riad & C. Gussenhoven (arg.), *Tones and tunes: Typological studies in word and sentence prosody* (291.-322. or.). Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110207569.291>
- Hualde, J. I. (2012). Two Basque accentual systems and the notion of pitch-accent language. *Lingua*, 122, 1335-1351. <https://doi.org/10.1016/j.lingua.2012.05.003>

- Hualde, J. I. (2018). Oiartzungo azentuera zaharra. *Fontes Linguae Vasconum*, 125, 113-132. <https://doi.org/10.35462/FLV125.4>
- Hualde, J. I. (inpr.). Accent shift and the reconstruction of Old Common Basque accentuation. In H. Kubozono, J. Ito & A. Mester (arg.), *Prosody and prosodic interfaces*. Oxford University Press.
- Hualde, J. I., Elordieta, G. & Elordieta, A. (1994). *The Basque dialect of Lekeitio* (ASJUren gehigarriak, 34). Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Hualde, J. I. & Lujanbio, O. (2008). Goizuetako azentuera. In X. Artiagoitia, J. A. Lakarra & J. I. Hualde (arg.), *Gramatika jaietan: Patxi Goenagaren omenez* (341.-358. or.). UPV/EHU.
- Hualde, J. I. & Lujanbio, O. (2009). Goizuetako azentuaz zerbait gehiago: Oharmena. In R. Gomez, R. Etxepare & J. A. Lakarra (arg.), *Beñat Oihartzabali gorazarre - Festchrift for Bernard Oyharçabal*. ASJU, 43, 485-502.
- Hualde, J. I. & Lujanbio, O. & Torreira, F. (2008). Lexical tone and stress in Goizueta Basque. *Journal of the International Phonetic Association*, 38(1), 1-24. <https://doi.org/10.1017/S0025100308003241>
- Hualde, J. I. & Lujanbio, O. & Zubiri, J. J. (2010). Goizueta Basque. *Journal of the International Phonetic Association*, 40, 113-128. <https://doi.org/10.1017/S0025100309990260>
- Hyman, L. M. (1976). Phonologization. In A. Juilland (arg.), *Linguistic studies presented to Joseph H. Greenberg* (407.-418. or.). Anma Libri.
- Hyman, L. M. (1981). Tonal accent in Somali. *Studies in African Linguistics*, 12(2), 169-203.
- Jun, S.-A. & Elordieta, G. (1997). Intonational structure of Lekeitio Basque. In A. Botinis, G. Kouroupetroglou & G. Carayiannis (arg.), *Intonation: Theory, Model and Applications* (193.-196. or.). ESCA.
- Kubozono, H. & Ogawa, S. (2004). Emergence of unaccented words in Japanese. *Proceedings of Speech Prosody 2004*, 33-36.
- Lahiri, A., Riad, T. & Jacobs, H. (1999). Diachronic prosody. In H. van der Hulst (arg.), *Word prosodic systems in the languages of Europe* (335.-422. or.). Mouton De Gruyter.
- Lakarra, J. A. (1995). Reconstructing the pre-Proto-Basque root. In J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language* (189.-206. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/cilt.131.08lak>
- Lujanbio, O. (2013/2018). Goizuetako azentu hiztegia. *ASJU*, 47(2), 1-86.
- Manterola, J. (2015). *Euskararen morfologia historikorako: artikuluak eta erakusleak* [Doktore tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/15848>
- Martinet, A. (1950/1970). De la sonorisation des occlusives initiales en basque. *Word*, 6, 224-233.
- Martinet, A. (1955/1970). Économie des changements phonétiques: Traité de phonologie diachronique. Éditions A. Francke.
- Martínez-Areta, M. (2004). El acento proto-vasco. *ASJU*, 38, 135-206.
- Mitxelena, K. (1957-58/2011). À propos de l'accent basque. *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, 53, 204-233. Berrarg. in J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.). (2011). *Luis Michelena. Obras completas VII* (123.-152. or.). Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.

- Mitxelena, K. (1972/2011). A note on Old Labourdin accentuation. *ASJU*, 6, 110-120. Berrarg. in J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.). (2011). *Luis Michelena. Obras completas VII* (163.-175. or.). Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Mitxelena, K. (1977/2011). *Fonética histórica vasca*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Berrarg. in J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.). (2011). *Luis Michelena. Obras completas VI*. Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Meillet, A. & Vendryes, J. (1924). *Traité de grammaire comparée des langues classiques*. Champion.
- Oftedal, M. (1952). On the origin of the Scandinavian tone distinction. *Norsk tidsskrift for sprogvidenskap*, 16, 201-225.
- Ratliff, M. (2015). Tonoexodus, tonogenesis, and tone change. In P. Honeybone & J. Salmons (arg.), *The Oxford handbook of historical phonology* (245.-261. or.). Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780199232819.013.021>
- Urrestarazu, I. (2021). *Gogoetak Euskara Batu Zaharraren hausturaz* [Argitaratu gabeko master amaierako lana]. UPV/EHU.
- Vendryes, J. (1902). *Recherches sur l'histoire et les effets de l'intensité initiale en latin*. Klincksieck.
- Zubiri, J. J. (2000). Arano eta Goizuetako hizkera. In K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak* (85.-122. or.). Arabako Foru Aldundia.
- Zubiri, J. J. & Perurena, P. (1998). *Goizuetak eta Aranoko hizkerak*. Nafarroako Gobernua, Goizuetako Udala & Aranoko Udala.
- Zuloaga, E. (2020). *Mendebaleko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz* [Doktore tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/49846>

